



Zer dira zuhaitza
eta basoa?



Baso-ekosistemaren garrantzia

Basoak zuhaitz multzoak baino zerbait gehiago dira: **ekosistema** bat osatzen dute, **bertan bizi diren flora eta fauna osoa** kontuan hartzen badugu. Basoak dira **landare eta animalien espezie aldetik aberatsenak diren lehorreko ekosistemak**. Ekosistema horiek euren dibertsitate handiagatik nabarmentzen dira:

- **Denbora aldetik:** basoek asko eboluzionatzen dute urtarotan zehar, baina baita mendeetan zehar ere.
- **Espazio aldetik:** Europan askotariko baso-masak eta mota askotako basoak daude.

I- Baso-ekosistemaren kontzeptua

Ekologian, **ekosistema** bat **organismo bizidunen multzo batez** osatuta dago (landareak, animaliak, onddoak, mikroorganismoak). Organismo horiek **biozenosi** bat osatzen dute, **ingurune berean bizi dira eta harremanak izaten dituzte elkarren artean eta euren ingurune fisiko eta kimikoarekin, lur gainean eta lurpean (biotopoa)**. Itsas inguruneak, hezeguneak eta basamortuak ere ekosistemen adibideak dira. **Baso-ekosistemaren** funtzionamendua ahalbidetzen duen **energiaren ekarpena eguzkitik** dator gehienbat (energia termikoa eta argi-energia). Energia horrek eraldaketak ahalbidetzen ditu, materiaren eta energiaren ziklo gisa, batez ere **fotosintesiaren** bitartez.



Ekosistema guztietan bezala, **izaki bizidunak osatzen dituen materia etengabe birziklatzen da** (eraketa eta deskonposizioa). Baso-ekosistema ez dago guztiz isolatuta bere alboko ekosistemetatik; aitzitik, materia, energia edo populazioen trukeak gertatzen dira eskala desberdinetan. **Europako baso guztiak gizakiek kudeatuta daude, eta, hortaz, esan genezake giza espeziea baso-ekosistemaren partaidea dela**. Izan ere, neurri batean beraren mende dago bere beharrak asetzeko.



Zer dira zuhaitza eta basoa? Baso-ekosistemaren garrantzia

II- Basoetako sare trofikoaren kontzeptua

Elikagai-sare edo **sare trofiko** bat osatzen duten landare eta animalien komunitate motak bereizi egin daitezke:

- 1- **Landareak, materiaren ekoizle eta elikagaien iturri gisa** (*adibidez, zuhaitzak, zuhaixkak edo iratzeak*);
- 2- **Belarjaleak**, hau da, landareez elikatzen diren animaliak (*adibidez: oreinak, hegaztiak edo untxiak*);
- 3- **Haragijaleak**: belarjaleez edo beste haragijale batzuek elikatzen dira (*adibidez, azeriak edo harrapariak*);
- 4- **Deskonposatzaileak**: hildako landare, animalia eta ondoak CO2 bihurtzen dituzte, eta baita landareek erabil ditzaketen elementu mineral ere (*adibidez, bakteriak, ondoak edo lurreko zizareak*).

Zuhaitzak lurzoruko elementu mineralak elikatzen dira, eta horien parte bat lurrera itzultzen dute euren hostoak eta adarrak jaitsi edo hiltzen direnean. **Lurzoruan**, organismo bizidun asko, batez ere **lurreko zizareak, orbelez elikatzen dira** –orbela hostoz eta hildako zurez osatuta dago gehienbat-. Lurzoruan, landareen **deskonposizioa** (materia organikoak dauzkan elementu kimikoak sistemari itzultzea ahalbidetzen du) **funtsezkoa da materia organiko berria ekoizteko**, zeren landare-espezie guztiak haren mende baitaude euren hazkunderako.

